

2016KO ABENDUAREN 28AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. =====	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 28 DE DICIEMBRE DE 2016. =====
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
----------------------------	------------------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteché (PSE-EE (PSOE))

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
---------------------------	--------------------------

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Iñaki Amorrortu Martínez (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)

Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontuhartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaiza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

233.- 2016KO AZAROAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

233.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 30 DE NOVIEMBRE DE 2016.

2016ko azaroaren 30ean Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 30 de noviembre de 2016.

LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES

OGASUNA, KONTUAK,
EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA
BALIABIDEAK, HEZKUNTZA,
GAZTERIA ETA EUSKARA

235.- HAINBAT DEKRETUREN
BERRI EMATEA,
TRANSFERENTZIEN BIDEZ
AURREKONTUAK ALDATZEARI
BURUZKOAK.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

4756/2016 zenbakidun Dekretua 125.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/17 kreditu-transferentzia. Kultura Etxearentzat egin da gastu batzuk finantzatzea.

5011/2016 zenbakidun Dekretua 25.452,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/18 kreditu-transferentzia. Jai-ospakizunetarako diru-laguntza finantzatzea.

5081/2016 zenbakidun Dekretua 2.240,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/19 kreditu-transferentzia. Gazteria Arloko ekintzetarako.

236.- 4776/2016 ZENBAKIDUN
DEKRETUAREN BERRI EMATEA:
KREDITUA PRESTATZEAREN
BIDEZ EGINDAKO
AURREKONTUAREN ALDAKETARI
BURUZKOA.

HACIENDA, CUENTAS,
PROMOCIÓN ECONÓMICA,
RECURSOS HUMANOS,
EDUCACIÓN, JUVENTUD Y
EUSKERA

235.- DACIÓN DE CUENTA DE
DIVERSOS DECRETOS DE
MODIFICACIÓN
PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL
USO DE TRANSFERENCIAS.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

Decreto nº 4756/2016 por un importe de 125.000,00 euros. Transferencia de credito 2016/17. Transferencia al Aula de Cultura para la financiación de diversos gastos.

Decreto nº 5011/2016 por un importe de 25.452,00 euros. Transferencia de credito 2016/18. Financiación subvención festejos.

Decreto nº 5081/2016 por un importe de 2.240,00 euros. Transferencia de credito 2016/19. Para los actos del Servicio de Juventud.

236.- DACIÓN DE CUENTA DEL
DECRETO 4776/2016 DE
MODIFICACIÓN
PRESUPUESTARIA MEDIANTE
HABILITACIÓN DE CRÉDITO.

Proposamena irakurri ondoren, Enrique Prada jaunak hitz egin du, GUK taldearen izenean, udalaren lurzoru-ondarearen erabilera saltzeko. Hain zuzen, lehentasunezko xede guztiak alde batera utzi, eta lehentasunik ez duten helburuetarako erabiltzen ari direla adierazi du; baina, hitzak erraten duen bezala, lehenengoek lehentasuna dutela. Aditzera eman du 2016rako aurrekontua onesterakoan zuzenketa bat planteatu zutela, zeinean eskatu zuten udalaren lurzoru-ondarearen erabilerak osoko bilkuran erabakitzeko. Zuzenketa, ordea, baztertu zen eta gobernu-taldeak zein EH Bilduk aurrekontua babestu zuten. Bestalde, azaldu du 2016. urtean udalaren lurzoru-ondarearen % 24,75 baino ez dela erabili lehentasunezko xedeetarako, eta horrek kalte egiten dio etxebizitza-politikari. Udal-taldeak iruzurra egin du udalaren lurzoru-ondarearen lehentasunezko erabilerari dagokionez. Proposamen zehatzean 108.000 euro gorde dira Fadurako garagardotegiaren eraikina birgaitzeko. Informazio-batzordeak jakitera eman zuen eraikina dagoen lurzoruak kirol-erabilera zuela arestian, bai eta oraindik ere, bertan urte askoan ostalaritza-zerbitzua izan bada ere. Horrenbestez inbertsioa egingo da, eraikinaren erabilera zein izango den zehaztu barik. Gogorazi du erabilerak zehaztea Getxo Kirolakeko Zuzendaritza Batzordeari dagokiola. Bere ustez, ez dauka zentzurik horren zenbateko handia inbertitzeak eraikinaren erabilera ez badute zehaztu.

Inazio Uriarte jaunak adierazi du GUK taldeak hainbatetan ez dituela proposamenak ulertzen, proposamenok harritzen dutela edo horietaz damutzen dela. Proposamenari buruzko aldeko

Tras darse lectura a la propuesta interviene Enrique Prada para, en nombre de GUK, denunciar el uso del PMS para destinos no preferentes obviando los destinos preferentes que, como el término significa, deben de ser prioritarios. Indica que en la aprobación del presupuesto de 2016 plantearon una enmienda en la que solicitaban que los destinos que se iban a dar a los recursos del Patrimonio Municipal del Suelo se decidiera en Pleno, enmienda que fue rechazada en dicho presupuesto que fue apoyado por el equipo de gobierno y EH Bildu. Manifiesta que el año 2016 de los recursos del Patrimonio Municipal del Suelo solamente el 24,75% han ido a los destinos preferentes, lo que supone un detrimento en relación a una política de vivienda. El equipo de gobierno hace un fraude en relación al destino prioritario del PMS. En la propuesta concreta se destinan 108.000 euros para la rehabilitación del edificio de la cervecera de Fadura y en la comisión informativa les indicaron que el suelo sobre el que está dicho edificio ahora y antes tenía uso deportivo, aunque durante muchos años ha existido un servicio de hostelería. Esto significa que se va a desarrollar una inversión sin definir cuál va a ser el uso de dicho edificio. La definición de usos recuerda que corresponde a la Junta Rectora de Getxo Kirolak y cree que no tiene sentido invertir una cuantía tan importante sin estar definido el uso del edificio.

Inazio Uriarte indica que le parece recurrente que GUK siempre o no entiende las propuestas o le sorprenden o lamenta las mismas. La propuesta tiene un informe de fiscalización

fiskalizazio-txostena egin da, eta, jarraian, horren edukia azaldu du. Esan du diru-sarrerak ez daudela aurrekontuari lotuta, hori onetsi ondoren lortzen baitira. Xedeari dagokionez, hori zehaztasun osoz azaldu zen Getxo Kirolakeko Zuzendaritza Batzordean. Gogora ekarri du garagardotegi izenaz dela ezaguna eraikina eta inbertsioek helburu dutela Getxo Kirolakeko instalazioak hobetzea. Jakinarazi du udalaren lurzoru-ondarean 7 milioi euro gorde direla etxebizitzetan esku hartzeko, eta aditzera eman du gobernu-taldeak etxebizitzako gaiei lotutako proposamenak egiten dituenean GUK taldeak ez dituela babesten edo ez duela horien inguruko iritzirik adierazten, baina, zorionez, gainerako talde politikoak badirela gai erabakiak adosteko. GUK taldea animatu du ildo horretan lan egin dezan.

Enrique Prada jaunak erantzun dio ez duela esan ulertu ez duenik eta, bere ustez, ulertzen ez duena gobernu-taldea dela *lehentasunezkoa* hitzari dagokionez, gobernu-taldeak Getxo Antzokia ulertzen baitu etxebizitza-politikatzat. Etxebizitzak eraiki ahal zitezkeen lekuari dagokionez, esan du udalak Getxo Antzokia finantzatzeko saldu dituen lurzoruetan eraiki zitezkeela. Gogora ekarri du gobernu-taldearekin egindako bilera batean Etxebizitza Planaren irismenari buruzko txostena eskatu zutela eta oraindik daudela horren zain. GUK taldeak badauzka proposamenak eta aurkeztu egingo ditu. Bestalde, kritikatu du gobernu-taldeak ez duela ezer egiten etxebizitza sozialen politikaren alorrean. Amaitzeko, adierazi du proposamen serio eta egokiak babestuko dituztela.

favorable, pasando a explicar su contenido. Manifiesta que los ingresos no guardan relación con el presupuesto ya que son ingresos obtenidos posteriormente a la aprobación del mismo. En relación al destino al que se remite se explicó con absoluto detalle en la Junta Rectora de Getxo Kirolak. Recuerda que cervecera es la denominación con la que se conoce al edificio y que el destino de las inversiones es mejorar las instalaciones de Getxo Kirolak. Informa que en el PMS hay siete millones de euros para actuaciones en vivienda y GUK cuando por parte del equipo de gobierno se realizan planteamientos en materia de vivienda o no apoya o no se pronuncia aunque, afortunadamente, el resto de los grupos políticos son capaces de llegar a acuerdos, invitando a GUK a trabajar en ese sentido.

Enrique Prada le replica manifestando que en ningún momento ha dicho que no entienda y opina que el que no entiende es el equipo de gobierno respecto a lo que es el término preferente ya que para el equipo de gobierno la política de vivienda es el Getxo Antzokia. Respecto a dónde podría construirse vivienda, manifiesta que se podría construir en los terrenos que el ayuntamiento ha vendido para financiar el Getxo Antzokia. Recuerda que en una reunión con el equipo de gobierno pidieron un informe sobre el alcance del Plan de Vivienda y siguen todavía a la espera del mismo. GUK tiene propuestas que presentarán y critica que el equipo de gobierno nada hace en política de vivienda social. Finaliza manifestando que apoyarán aquellas propuestas que sean serias y congruentes.

Joseba Arregi jaunak aditzera eman du zerbait lehentasunezkoztat jotzeko, aldeaz aurretik zertaz ari diren jakin behar dutela, eta etxebizitza-alorrean proposamen zehatza egiten dutenean beraz aztertuko dutela. Gobernu-taldeak badu etxebizitzari eta ekipamenduei buruzko proiektua. Enrique Prada jaunari gogorazi dio Plan Orokorra aztertzeko taldeetako kide izan zela eta jadanik garai hartan adierazi zuela zein zen bere iritzia Getxon eraiki beharreko etxebizitzaren inguruan. Azaldu du gazteak inguruko herrietara doazela etxebizitza bila, udalerriri horietan etxebizitzak sustatzen eta eraikitzen ari baitira. Gogoratu du etxebizitza-politika osoko bilkuran proposatu behar dela eta, proposamenak egiteko orduan, GUK taldeak ezezkoak baino ez dituela ematen.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

4776/2016 zenbakidun Dekretua 313.171,84 euroko zenbatekoarekin. 2016/10 kreditua gaitzea. Getxo Kirolak erakundearen inbertsioak, EAEko 2/2006 legea, ekainaren 30ekoa, 115.1.e) art.

237.- GETXO KIROLAK TEA-N ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA KIROL ETA KULTUR JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAREN ZERGA-ORDENANTZAREN

Joseba Arregi manifiesta que para definir algo como preferente hay que saber a qué se está refiriendo y que cuando planteen algo concreto en materia de vivienda lo estudiarán. El equipo de gobierno tiene un proyecto sobre vivienda y equipamientos. Recuerda a Enrique Prada que participó en los grupos de estudio del Plan General y entonces ya manifestó su opinión en relación a las viviendas que deben de hacerse en Getxo. Manifiesta que los jóvenes se van a buscar vivienda en los pueblos del entorno porque en esos municipios se está promoviendo y construyendo vivienda. Recuerda que la política de vivienda a de pasar por el Pleno y GUK cuando se presentan propuestas solamente sabe decir que no.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del siguiente decretos de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

Decreto nº 4776/2016 por un importe de 313.171,84 euros. Habilitación de crédito 2016/10. Inversiones Getxo Kirolak art. 115.1.e) Ley 2/2006, de 30 de junio del País Vasco.

237.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y

ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEIA.

Proposamena irakurri ondoren, Eduardo Andrade jaunak hitz egin du adierazteko horren aurka bozkatuko dutela, nagusiki, familia ugarien laguntzak ezabatu dituelako. Gainera, gobernu-taldeak izaera fiskaleko udal-araudi ugarietan laguntza horiek kentzen ari da. PP taldearen aburuz, familia ugarietara laguntza fiskala eman behar zaie. Getxo Kirolakek beste laguntza-araubide bat ezarri du eta, Getxoko laguntzen ezaugarri orokorrak aztertuta, uste du laguntzak ulertu ahal izateko eta horiek eskuratu ahal izateko, beharrezkoa dela master bat egitea. Izan ere, laguntza bakoitzak sarrera-baldintza desberdinak ezartzen ditu eta gerta daiteke erakunde batzuetako hobarien onuradun izatea, baina ez beste batzuenena. Dauden irizpide desberdin guztien berri eman du, eta hamar zenbatu ditu. Horregatik, bere ustez, homologatzen saiatu behar dira, ahal den neurrian, eta gobernu-taldeari hausnarketa egin dezan eskatu dio.

Paula Amieva andreak adierazi du GUK taldeak zalantzak dituela ordenantzen aldaketa egin den moduaren inguruan. Espero zuten Musika Eskolako diru-laguntzak bezala izapidetzea, hau da, udal-talde guztiek parte hartzea izapidetan; baina, oraingo kasuan ez da hala egin. GUK taldeak egindako ekarpen tekniko batzuk onartu dira, baina ez da ireki irizpide politiko desberdinek parte hartzen. Aurkako botoa emango dute testu oso iluna deritzotelako eta udal-taldeen parte-hartze txikia eskaini zaielako. Uste dute ordenantza osorik berrikusi

REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS Y CULTURALES EN EL O.A.L. GETXO KIROLAK.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade para manifestar que votarán en contra de la propuesta fundamentalmente por la eliminación de las ayudas a las familias numerosas, eliminación que el equipo de gobierno está generalizando en muchas normativas municipales de carácter fiscal. El PP cree que hay que apoyar fiscalmente a las familias numerosas. En Getxo Kirolak se ha establecido un nuevo régimen de ayudas y cree que estudiando la generalidad de las ayudas de Getxo, para poder entender y acceder a las mismas es preciso hacer un master ya que en cada ayuda se cambian los criterios económicos para acceder, pudiendo darse la situación de ser beneficiario de bonificaciones en algunos organismos y en otros no. Da cuenta de todos los criterios dispares que existen llegando a numerar diez criterios diferentes y cree que debe intentarse homologar en la medida de lo posible, por lo que pide reflexionar al equipo de gobierno.

Paula Amieva indica que a GUK le genera dudas cómo se ha llevado a cabo la modificación de la ordenanza. Esperaban que se tramitara como se hizo con las becas de la Escuela de Música que fue una tramitación en la que se dio participación a todos los grupos municipales pero que esta vez no ha sido así. Se han asumido algunas aportaciones técnicas de GUK pero no se ha abierto a la participación de diferentes criterios políticos. Se posicionan en contra porque les parece que es muy farragoso el texto y por la escasa participación que se les ha dado

beharra dagoela, batez ere, ezarri dituen kuotak, ez baitatoz bat gaitasun ekonomikoarekin. Bere iritziz, bakarrik ikasketa-gunean sartzeko beste kuota bat ezarri behar da; horrek onura ekarriko luke, batez ere gazteei. Iruditzen zaio kuotak ez direla behar bezain progresiboak eta ez direla gaitasun ekonomikora egokitu.

Ibon Rodríguez jaunak, EH Bildu taldearen izenean, adierazi du proposamenak badituela alderdi positiboak, aurrekontuari buruzko erabakiaren ondorioz sortutakoak, hala nola Getxo Kirolakeko ikastaroetarako hobariak irekitzea egoera ekonomikoaren arabera. Positiboa deritzote ere kuotaren ordainketaren kudeaketan eta hobariaren aplikazioan egindako aldaketari. Beren ustez, familia ugariei hobariak eman beharrear, familia-unitateen diru-sarrerei eta kide-kopuruari erreparatu behar zaie. Ez datoz bat tarifekin eta aurrekontuari buruzko erabakian planteatu zuten horiek aldatzea, baina ezin izan da horrelakorik egin gobernataldeak ez duelako denborarik izan gai hori jorrazteko. Hala ere, konpromisoa hartu du martxorako proposamen bat egiteko. Egoera hori dela-eta abstenituko dira, eta martxoan tarifen inguruko erabakirik egiten badute, orduan baliteke ordenantzaren alde egitea.

Alvaro González jaunak adierazi du indarreko ordenantza 2012. urtean onetsi zela eta hobariak gehitu zituela lanbide arteko gutxieneko soldatari lotutako errenta-irizpideak aintzat hartuta. Garai hartan dagoeneko aipatu zen, tarifa berriak abian jarri eta arautu

a los grupos municipales. Creen que debe revisarse íntegramente la ordenanza y, sobre todo, las diferentes cuotas existentes que no responden a la capacidad económica. Opina que para acceder sólomente a la zona de estudio debe establecerse una cuota diferenciada ya que ello beneficiaría sobre todo a los jóvenes. Cree que las cuotas no son suficientemente progresivas y no se adecúan a la capacidad económica.

Ibon Rodríguez, en nombre de EH Bildu, manifiesta que la propuesta tiene aspectos positivos que derivan del acuerdo presupuestario como son la apertura de las bonificaciones, en base a la situación económica, a los cursos de Getxo Kirolak. También les parece positivo el cambio de gestión en el pago de la cuota y la aplicación de la bonificación. Creen que las familias numerosas no deben bonificarse, sino que se debe tener en cuenta los ingresos y el número de miembros de la unidad familiar. No les gustan las tarifas y en el acuerdo presupuestario plantearon modificarlo, pero no se ha podido realizar porque el equipo de gobierno no ha tenido tiempo para abordar esta cuestión, aunque han tomado el compromiso de llegar a una propuesta para marzo. Ante esta situación se abstendrán y si en marzo llegan a un acuerdo sobre las tarifas pueden llegar a apoyar la ordenanza.

Alvaro González indica que la ordenanza en vigor se aprobó en el año 2012 e incorporó bonificaciones con criterios de renta vinculados al salario mínimo interprofesional. Ya en aquel momento se comentó que una vez que se experimentaran las nuevas tarifas y

ostean, esperientzia ikusi ostean, balioztatuko zituztela aldaketa egokiak proposatzeko. Horixe planteatu da, hain zuzen ere, aldaketa honetan, onuradunak zabaldu dituenean. Izan ere, besteak beste, errentaren atalasea areagotu da eta zerbitzu gehiago jarri dira, izapideak hobetu direlarik. Horrela, mesede egin zaie hobariak jasotzen dituztenei, ez dutelako horiei dagokien dirua aurreratu behar. Familia ugarietako hobaria kentzeari dagokionez, aditzera eman du indarreko araudiaren ondoriozko erabakia izan dela, araudiak ez baitu baimentzen hobaririk ematea errenta-maila kontuan hartu barik. Azkenik, esan du aldaketa abian jarri eta gero balioztatuko direla horren ondorioak, beste aldaketa batzuk proposatze aldera, hala balegokio, herritarrei nahiz Getxo Kirolaki onura egiteko.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 11 boto (EAJ, PSE-EE), aurkako 9 (PP, GUK), eta 5 abstentzio (EH Bildu, Ciudadanos).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Behin-behinean onestea, Getxo Kirolak TEAn zerbitzuak emateagatik eta kirol eta kultur jarduerak egiteagatik sortutako tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa. Aldaketa horrek "Salbuespenak eta hobariak" deritzan IV kapitulari eragiten dio eta hortaz, proposamen honen eranskinaren esanei jarraituz berridatziko da. Oro har, honako aldaketa hauek egingo dira:

su regulación se haría una valoración de las mismas para plantear las modificaciones que correspondan y eso es lo que se plantea en esta modificación, que recoge una ampliación de beneficiarios ya que se sube el umbral de renta, se amplían servicios, etc., a la vez que se mejora la tramitación de forma que se beneficie a las personas que obtienen bonificaciones, ya que no tienen que adelantar el dinero de las mismas. Respecto a la retirada de la bonificación a las familias numerosas, indica que se ha debido a que la normativa en vigor no permite bonificar sin tener en cuenta el nivel de renta. Manifiesta finalmente que, tras ponerse en práctica estas modificaciones, se valorará el efecto de las mismas para presentar otras modificaciones si fueran procedentes en orden a beneficiar a la ciudadanía y también a Gertxo Kirolak.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 9 votos en contra, PP, GUK; 5 abstenciones, EH Bildu, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

PRIMERO.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por la prestación de servicios y realización de actividades deportivas y culturales en el O.A.L. Getxo Kirolak. Dicha modificación afecta al Capítulo IV "Exenciones y bonificaciones", que quedará redactado en los términos del anexo a esta propuesta, y se concreta, en términos generales, en los siguientes

- 6. artikuluan araututako hobariak jarduera fisikoko ikastaroen erabiltzaileei ere aplikatuko zaizkie, orain artean hobari horiek jaso ez badituzte ere.
- Hobariak eskatzekotan aurkeztu beharreko agiriak, lehenagoko urtekoak izan beharrean, lehenagoko bi urteetakoak izango dira.
- Familia ugariaren titulua dutela ziurtatzen duten abonatuak aplikatu zaien hobaria deuseztatua da.
- Tasa kobratzea kudeatzeko modua aldatu egin da. Hala, aldaketa egin eta gero, behin hobari fiskala aplikatuta kobratuko litzateke.
- Azkenaren buruan, baremoen taulan ageri diren hobariaren ehunekoak, errentako zenbatekoak eta errenta bera kalkulatzeko erabiltzen den kideen kopurua aldatuko dira.

BIGARRENA.- Behin betiko onartzen denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez.

HIRUGARRENA.- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren lehen adierazitako 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako ordenantza fiskalaren bertsio berriarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako iragarki-taulan, 30 egun baliiodunez. Horrela, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten

apectos:

- Se aplican las bonificaciones reguladas en el artículo 6 también a los usuarios de los cursos de actividad física, que hasta ahora no estaban beneficiados por las mismas.
- La documentación a presentar para la solicitud de las bonificaciones pasa a referirse a los dos años anteriores en vez de únicamente al año anterior.
- Se elimina la bonificación aplicable a los abonados que acrediten estar en posesión del título de familia numerosa.
- Se cambia la forma de gestionar el cobro de la tasa, que a partir de la modificación se haría una vez aplicado el beneficio fiscal.
- Y, por último, se modifican en la tabla de baremos los porcentajes de bonificación, las cuantías de renta y el número de miembros que se tienen en cuenta para el cálculo de esa renta.

SEGUNDO.- Dicho texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

TERCERO.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, el presente acuerdo provisional, junto con la nueva redacción de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y

erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

LAUGARRENA.- Jendaurreko erakustaldia BAO n iragarriko da, baita zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere. Azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea zenbatzen.

**238.- ERREKLAMAZIOAK
EBATZITA HIRI LURREN BALIO
GEHIKUNTZAREN GAINEKO
ZERGAREN UDAL ORDENANTZA
FISKAL ARAUTZAILEA
ALDARAZITA BEHIN BETIKO
ONESTEIA.**

Proposamena irakurri ondoren, Inazio Uriarte jaunak hitz egin du adierazteko alegazio bakarra aurkeztu dela. Ondoren, beraren edukia azaldu du, bai eta hura ez onartzea proposatzeko irizpide juridikoak ere.

Eduardo Andrade jaunak adierazi du proposamenaren aurka bozkatuko dutela eguneraketa baino, zergaren igoera delako. Hori dela eta aurkeztu zuten zuzenketa, zeinean tasa murriztu zuten; zuzenketa, ordea, ez zen onartu. Bere ustez, aurkeztutako alegazioa koherentea da errealitatearekiko, zergak automatikoki funtzionatzen baitu, nahiz eta zenbaitetan balioa benetan areagotu ez izan. Gogorazi du hainbat epaiek alegatu duenaren irizpidea onartu dutela eta gaia Auzitegi Konstituzionalaren aurrean aurkeztu dela. Berretsi du aurkako botoa emango dutela, batik bat, proposamenak zerga igo duelako.

presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

CUARTO.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B, publicándose además anuncios de la misma en uno de los diarios de mayor difusión, y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación del último anuncio.

**238.- RESOLUCIÓN DE
RECLAMACIONES Y APROBACIÓN
DEFINITIVA DE LA
MODIFICACIÓN DE LA
ORDENANZA FISCAL
REGULADORA DEL IMPUESTO
QUE GRAVA EL INCREMENTO DE
VALOR DE LOS TERRENOS DE
NATURALEZA URBANA.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte para indicar que se ha presentado una única alegación pasando a explicar el contenido de la misma y los criterios jurídicos por los que se propone su desestimación.

Eduardo Andrade manifiesta que van a votar en contra de la propuesta ya que más que una actualización es una subida del impuesto y por ello presentaron una enmienda reduciendo el tipo, enmienda que fue desestimada. Cree que la alegación presentada es coherente con la realidad ya que el impuesto actúa de forma automática sin que a veces exista realmente un incremento de valor. Recuerda que hay sentencias que han asumido el criterio del alegante y que la cuestión está presentada ante el Tribunal Constitucional. Se ratifica en que el voto en contra se debe fundamentalmente a que la propuesta

Santiago Sainzek uste du egun garrantzitsua dela Getxorentzat. Ordenantza fiskal berria onartu da eta gobernu taldearentzat pozez betetako unea da, etekina atera nahi diolako zergen igoera orokorrari, Batzar Nagusietan onartu den katastro-balio berriaren igoeraren ondorio, zerga honen zerga oinarria ere badena, edo beste modu batean esanda, hiri izaerako ondasun higiezin bat eskualdatzen den bakoitzean zergadunak ordaindu behar duen zenbatekoa kalkulatzeko oinarri hartzen den balioa. Proposamenak foru araudia kopiatzen du, baina ez guztiz. Izan ere, asko murrizten ditu getxotarrek zerga gutxiago ordain ditzaten foru araudiak eskaintzen dituen aukerak, karga-tasa aukeratuz edo hobarien kopuruaren eta kalitatearen arabera. Zuzenketa bat planteatu zuten; zehazki, zerga murriztea proposatu zuena, baina ez zen onartu. Horregatik, proposamenaren aurka bozkatuko dute.

Inazio Uriarte jaunak azaldu du tasa kalkulatu dela zerga-bilketa berdina edo txikiagoa izan dadin, azken aldaketak kontuan izanik. Behin-behinean onesteko egindako osoko bilkuran azaldu zenez, errenta-atalasea handitu da, heriotza-kasuetan ezkontideen salbuespenei mesede egiteko. Hiriaren hobekuntzak ekarri du zergaren automatizazioa, eskualdatutako ondasunetan eragiten baitu kasuan kasuko balio zehatza kontuan hartu barik.

Eduardo Andrade jaunak erantzun du

incorpora una subida del impuesto.

Santiago Sainz cree que es un día importante para Getxo, se aprueba una nueva ordenanza fiscal y es momento de júbilo y alegría para el equipo de gobierno, que es el que espera sacar el rédito de la subida generalizada de impuestos, fruto del incremento del nuevo valor catastral aprobado en Juntas Generales, que además es la base imponible de este impuesto; o dicho de otra manera, el valor sobre el que se calcula la cantidad a pagar por el contribuyente cada vez que se transmite un bien inmueble de naturaleza urbana. La propuesta copia la normativa foral pero no totalmente, recortando muy mucho las posibilidades de margen que la normativa foral contiene para hacer que los getxotarras paguen menos impuestos, ya sea por la elección del tipo de gravamen, como por el número y calidad de las bonificaciones. Plantearon una enmienda que proponía rebajar el impuesto pero no se aprobó, por lo que votarán en contra de la propuesta.

Inazio Uriarte indica que el tipo esta calculado para que la recaudación sea igual o incluso menor, teniendo en cuenta las últimas modificaciones. Tal como se explicó en el Pleno de la aprobación inicial se ha incrementado el umbral de renta para favorecer las exenciones entre cónyuges en caso de fallecimiento. La razón de la automatización del impuesto deriva de la mejora de la ciudad que incide en la propiedad transmitida sin que se haga referencia al valor concreto en cada caso.

Eduardo Andrade replica que el

zerga lurren balio-gehikuntzaren gainekoa dela eta oinarria beste bat balitz, zergaren izena aldatu beharko litzatekeela. Berretsi egin du bere jarrera; hots, aldaketa zerga igotzean datzala.

Santiago Sainz jaunak adierazi du gobernu-taldea aurreikuspenetan oinarritu dela tasa justifikatzeko eta, modu horretan, egungo presio fiskalari eusten zaiola, gehiegizkoa, bide batez, beraren eta hiritarren ustez. Hobarien areagotzea ez da foru-arauak jasotakoa bezain zabala. Esaterako, ondorengo eta ahaideen hobariak handitu daitezke, hain zuzen ere, % 33koak beharrezan proposamenean adierazitako portzentajea-, % 100ekoak izan daitezke.

José Luis Landa jaunak aditzera eman du politika fiskalak birbanatzeko balio duela. Bere iritziz, zergaren izena zuzena da jabetza ordaintzen delako eta jabetzaren gaineko zerga delako. Bestalde, adierazi du doikuntza fiskalak egin direla katastroaren berrikuspenean dela eta, baina, bere ustez, doikuntzak nabariagoak izan beharko luketela.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 11 boto (EAJ, PSE-EE), aurkako 6 (PP, Ciudadanos), eta 8 abstentzio (GUK, EH Bildu).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Ezestea, sarrera-erregistroko zenbakia 34782/2016 duela, Antonio Tena Nuñez jaunak egindako erreklamazioa, behin-

impuesto es el incremento sobre el valor de los terrenos y si tiene otro fundamento debería cambiar la denominación del mismo. Ratifica su posición en base a que la modificación supone subir el impuesto.

Santiago Sainz indica que el equipo de gobierno basa la justificación del tipo en previsiones, lo que supone mantener la actual presión fiscal que, en su opinión y en la de la ciudadanía, es excesiva. El incremento de las bonificaciones no es todo lo amplia que recoge la norma foral y que existe la posibilidad de ampliar las bonificaciones los descendientes y ascendientes y que la misma en vez de ser del 33%, que figura en la propuesta, puede llegar al 100%.

José Luis Landa manifiesta que la política fiscal sirve para redistribuir y cree que el título del impuesto es correcto porque la propiedad se paga y es un impuesto sobre la propiedad. Indica también que con motivo de la revisión catastral se han producido unos ajustes fiscales que en su opinión debían de haber sido más importantes.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 6 votos en contra, PP, Ciudadanos, 8 abstenciones, GUK, EH Bildu.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

PRIMERO.- Desestimar la reclamación formulada con nº de Registro de Entrada 34.782/2016 por Don Antonio Tena Nuñez, toda vez que la

behineko onespeneko erabakian proposatutako aldaketa bat etortzen baita, abenduaren 16ko 9/2005 foru arauan, Tokiko Ogasunei buruzkoan, eta ekainaren 30eko 8/1989 foru arauan, Hiri-Lurren Balio-Gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoan, ezarritakoekin, honekin batean dakarrela espedienteak aldean daukan txosten juridikoan zuzenesten den bezala.

BIGARRENA.- Behin betiko onestea Hiri Izaerako Lurraldeetako Balio Igoeraren Zerga araupetzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa, espedienteak barne hartutako testuan ezarritako baldintzei jarraiki, hori guztia, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.3. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

HIRUGARRENA.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea ordenantzaren aldaketa behin betiko onesteko akordioa, eta baita aldatari buruzko testu osorik ere, horrek guztiak 2017ko urtarrilaren 1ean ondorioak izan ditzan.

LAUGARRENA.- Interesdunek dagokion Administrazioarekiko Auzi Errekurtoa ezarri ahal izango dute akordio honen aurka, aipatutako jurisdikzioa araupetzen duten arauak ezarritako eran eta epeetan.

modificación planteada en el acuerdo de aprobación provisional se ajusta a lo establecido en las Normas Forales 9/2005 de 16 de diciembre de Haciendas Locales y 8/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, tal y como se justifica en el informe jurídico, que se adjunta y que obra en el expediente

SEGUNDO.- Aprobar con carácter definitivo la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, en los términos que se establecen en el texto incorporado al expediente, todo ello de conformidad con lo previsto en el artículo 16.3 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales.

TERCERO.- Publicar en el Boletín Oficial de Bizkaia el acuerdo definitivo de aprobación de la modificación de la ordenanza, así como el texto íntegro de la modificación, surtiendo efectos a partir del 1 de enero de 2017.

CUARTO.- Contra el presente acuerdo, los interesados podrán interponer el correspondiente recurso Contencioso-Administrativo en la forma y plazos que establecen las normas reguladoras de dicha jurisdicción.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

239.- GUK UDAL TALDEAK
AURKEZTUTAKO MOZIOA:
HIRIGINTZARI BURUZKO
ALDAKETAK EGITEKO
PROPOSAMENEN

MOCIONES E INTERPELACIONES

239.- MOCIÓN DEL GRUPO
MUNICIPAL GUK S/PARA
MEJORAR LA TRANSPARENCIA DE
LAS PROPUESTAS EN RELACIÓN A
MODIFICACIONES

GARDENTASUNAREN ALDE.

Enrique Prada jaunak mozioa irakurri du.

Amaia Agirre andreak adierazi du mozioa ulergaitza iruditzen zaiola. Aditzera eman du publizitate aktiboa gardentasunaren zati bat dela. Mozioak horixe jaso du, hain zuzen, ematen den informazioa eta hori irisgarria eta ulergarria izatea. Gogorazi du Getxoko udalerria bere gardentasun-mailagatik ezaguna dela. Adierazi du, Gardentasunari buruzko Legearen arabera, txosten teknikoak ez direla derrigorrez argitaratu behar. Bere ustez, eskatu dutenaren zati handi bat webgunean jasota dagoen informazioa da, hirigintzari nahiz kontratazioari buruzko hainbat ataletan. Azaldu ditu webgunean sartzeko dauden erak obra publikoei, hirigintzari eta azpiegiturei buruzko informazioa eskuratzeko. Adierazi du gobernu-taldeak gardentasunaren alorrean hobetzen jarraitu nahi duela, eta eskertu du GUK taldeak gai horri dagokionez azaldutako interesa nahiz eta, adierazi dutenaren arabera, aurkako botoa emango duten.

Enrique Prada jaunak berretsi du mozioa ez dela kontratazioari buruzkoa, baizik eta bide publikoak hobetzeko proposamenei buruzkoa. Udal-talde politikoek bide publikoa hobetzeko proposamenak egiteko legitimatuta daude, ekimen propioz nahiz herritarrek eskatuta; horrelakoak planteatzen dituztenean, berriz, gobernu-taldeak beti erantzuten du egiten ari direla, baina mozioek xede dute zer egiten ari den ezagutzea, zein txosten eta azterlan egiten dituzten teknikariek, udalkide eta herritar guztiek jakin dezaten. Aditzera eman

URBANÍSTICAS.

Enrique Prada da lectura a la moción.

Amaia Agirre manifiesta que la moción le parece de difícil comprensión. Indica que en la transparencia existe una parte que es la publicidad activa, que es a la que se refiere la moción y que trata acerca de la información que se ofrece y que ésta sea accesible y entendible. Recuerda que Getxo es un municipio reconocido por su nivel de transparencia. Manifiesta que según la Ley de Transparencia no es obligatoria la publicación de los informes técnicos. Cree que gran parte de lo que solicitan se trata de información que se recoge en la página web en distintos apartados tanto relativos a urbanismo como a contratación. Explica las diferentes formas de acceso a la web para acceder a la información sobre obras públicas, urbanismo e infraestructuras. Manifiesta que la voluntad del equipo de gobierno es seguir mejorando en la transparencia y agradece el interés de GUK en la cuestión aunque, por lo manifestado, van a votar en contra de la moción

Enrique Prada insiste en que la moción no habla de contratación sino que se refiere a las propuestas técnicas para mejorar las vías públicas. Los grupos políticos municipales están legitimados para trasladar propuestas de mejora en la vía pública, tanto por iniciativa propia como a petición vecinal, y cuando plantean estas cuestiones el equipo de gobierno contesta siempre que se está haciendo y el objeto de la moción es conocer qué es lo que se está haciendo, qué informes y estudios realizan los técnicos para que éstos sean conocidos por todos los corporativos y

du urrian egindako osoko bilkuran erantzun zietela teknikariek txostenak eta proposamenak egin zituztela herritarren eskaera ikusirik. Horiexek ezagutu nahi dituzte. Gai horri dagokionez, webgunean ez da ezer agertzen; horregatik aurkeztu dute mozioa. Uste dute webguneko egungo sarbideen antolaketa nahasgarria dela, behinik behin Obra Publikoak, Hirigintza eta Azpiegiturak izeneko fitxarena.

Joseba Arregi jaunak erantzun du webgunean agertzen direla kontratatutako edo kontratazio-izapidean dauden obra guztiak. Aitortu du beste esku-hartze batzuk, zuzenak eta txikiak, nagusiki sailaren memorietan jasotzen direla eta informazio-batzordeari bidaltzen zaiola beharrezkoa duen dokumentazio eta informazio guztia. Gobernu-taldeak legealdi-planaren eta urteko aurrekontuaren arabera dihardu; proposamen teknikoak gobernu-taldeak bultzatuta sortzen dira.

Maite Arraiza andreak jakitera eman du EH Bildu taldeak mozioa babestuko duela gardentasunean sakontzeari buruzkoa delako. Onartu du webguneko zenbait ataletan ez direla agertzen informazio-eduki asko, hala ere, bere ustez gobernu-taldeak sakondu behar ditu webguneari gehituko zaizkion edukiak.

Amaia Agirre andreak adierazi du webgunean badagoela informazio zehatz anitz, kontratu guztiei eta gainerako gaiet buruzkoa. Etengabe ari dira informazioa gehitzen. Berretsi du webguneko edukia legeak ezarritakotik gora dagoela.

la ciudadanía. Indica que en el Pleno de octubre pasado se les contestó que ante las peticiones que hacían los vecinos por parte de los técnicos se han hecho informes y propuestas y esas son las que quieren conocer. De estas cuestiones no figura nada en la página web y por ello han presentado la moción. Creen que la disposición actual de accesos en la web genera confusión, al menos en la pestaña de Obras Públicas, Urbanismo e Infraestructuras.

Joseba Arregi replica que en la página web figuran todas las obras contratadas o en trámite de contratación. Reconoce que hay otras pequeñas intervenciones directas que se recogen fundamentalmente en las memorias del departamento y remite a la comisión informativa para toda la documentación e información que necesiten. El equipo de gobierno responde básicamente en su trabajo a un plan de legislatura y un presupuesto anual y las propuestas técnicas se generan a impulsos del equipo de gobierno.

Maite Arraiza indica que EH Bildu apoyará la moción ya que plantea profundizar en la transparencia. Reconoce que en diferentes apartados de la página web figuran muchos contenidos informativos, pero cree que el equipo de gobierno debe profundizar en los contenidos a incorporar en la página web.

Amaia Agirre indica que en la página web hay mucha información concreta que abarca a todos los contratos y demás cuestiones. Se está incrementando la información de manera continua. Se ratifica en que el contenido de la web es superior a lo exigido por ley.

Enrique Prada jaunak adierazi du ez direla ari lege-betebeharrez, baizik eta borondateaz. Mozioan aipatu da, besteak beste, bi plazaren hobekuntza. Horrelakoak ez dira esku-hartze txikiak eta ezagutu nahi dituzte plazei buruzko txosten eta proposamen teknikoak. Halaber, ezagutu nahi dituzte herritarrek eskatuta teknikariek egiten dituzten txosten eta proposamenak. Aditzera eman du fitxa askok kontratatzailearen profiler a bideratzen dutela amaieran eta bertan, informazio ugari badago ere, abian diren proiektuei buruzkoa dela. Ezagutu nahi dituzte proiektuen aurreko urratsak, hala nola proposamen teknikoak, eta horietan webgunean ikusgai izatea nahi dute.

Mozioa bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 14 boto (PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos) eta kontrako 11 (EAJ, PSE-EE).

Gehiengoak onartutako mozioak:

Ez dira gutxi udal taldeok osoko bilkurretan aurkezten ditugun mozioak, gure udalerriko kale eta plazetan hobekuntzak edo eraberritze-lanak proposatzeko. Zenbaitetan, gobernu taldeak mozioak baztertzeko dituzte hirigintza arloko zerbitzu teknikoek dagoeneko ikertu eta aztertu dituztela argudiatuta, getxotarrek proposamen horiek egin baitituzte. Zerbitzu horien arduradun nagusiaren hitzetan, zerbitzuok proposamen egokiak igortzen dizkiote.

Getxoko Udalaren gardentasun atarian "obra publikoak, hirigintza eta

Enrique Prada manifiesta que no se habla de obligaciones legales sino de voluntad. La moción hace referencia a propuestas como son las mejoras de dos plazas que indica y que no son pequeñas actuaciones y quisieran conocer los informes y propuestas técnicas respecto a esas plazas. También quieren conocer los informes y propuestas que los técnicos realizan a las peticiones vecinales. Manifiesta que en la web desde muchas pestañas finalmente se acaban remitiendo al perfil del contratante, que tiene mucha información pero que se refiere a proyectos en marcha, quieren conocer estadios anteriores a los proyectos, como son las propuestas técnicas y que las mismas sean visibles en la web.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 votos en contra, PNV; PSE-EE.

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

No son pocas las mociones que los distintos Grupos Municipales elevamos al Pleno, proponiendo mejoras o reformas de calles y plazas de nuestro municipio. Mociones que, en determinadas ocasiones, son rechazadas por el equipo de Gobierno bajo el argumento de que las mismas están estudiadas y analizadas por los servicios técnicos del área de urbanismo al haber sido propuestas por la ciudadanía getxotarra. Servicios que, en boca de su máximo responsable, le hacen llegar las correspondientes propuestas.

En el portal de transparencia del Ayuntamiento de Getxo hay un

azpiegiturak" izeneko atal zehatza dago, eta atal horretan agertu beharko lirateke, hain zuzen, zerbitzu teknikoek aztertu eta ikertutako proposamen teknikoak, bide publikoetan hirigintzako eraberritze- edota hobekuntza-lanak egiteko. Horrela, auzokide eta udal taldeok ezagutuko genituzke aztertu diren eraberritze- eta berrikuntza-lanak eta, informazio hori jakinda, gobernu taldearen ekintzen kontrol eraginkorragoa gauzatu ahal izango genuke, besteak beste, gai hauei dagokienez: egikaritze-lehentasunak, eraberritze-lanak egikaritzeko atzerapenak eta gastu publikoaren kudeaketa.

Era berean, eta proposamen horiek gardentasun atarian gehitzeko erabakia baliatuz, bidezkoa litzateke eskaintzen den informazioa egokitzea "obra publikoak, hirigintza eta azpiegiturak" ataleko lehenengo hiru esteken bidez ematen omen den informazioari. Izan ere, esteketan sakatuz gero ikusi daiteke informazioa atalak iragartzen duenaren oso bestelakoa dela.

Azaldutako guztiagatik, eta hori dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu osoko bilkuran:

ERABAKI PROPOSAMENA

1.- Gardentasun atariko "obra publikoak, hirigintza eta azpiegiturak" atalean argitaratzea zerbitzu publikoek igorritako proposamen teknikoak bide publikoetan hirigintzako eraberritze- edota hobekuntza-lanak egiteko, proposamen teknikoaren data zehatza adieraziz eta, hala badagokio, egikaritze-aurreikuspena ere.

apartado específico para "Obras públicas, urbanismo e infraestructuras", apartado en el que debería incluirse las propuestas técnicas que han sido estudiadas y analizadas por los servicios técnicos para acometer reformas y/o mejoras urbanísticas en las vías públicas. Ello redundaría en que los/as vecinos/as y los grupos municipales conozcamos las reformas y/o mejoras que se han analizado y que, con tal información, podamos ejercer un control más efectivo de la acción del equipo de gobierno (prioridades de ejecución; demora en la ejecución de reformas; administración del gasto publico ...).

Asimismo, y aprovechando la inclusión de esas propuestas en el portal de transparencia, procedería acomodar la información que se dice suministrar en los tres primeros enlaces del apartado "Obras públicas, urbanismo e infraestructuras" con la que, en realidad, se suministra. Y es que, como puede comprobarse pinchando en los citados enlaces, la información que se obtiene dista mucho de ser la que anuncian los mismos.

Por todo lo expuesto, y en consecuencia, procedemos a elevar al Pleno la siguiente,

PROPUESTA DE ACUERDO:

1.- Publicar en el portal de transparencia, apartado "Obras públicas, urbanismo e infraestructuras", las propuestas técnicas que elevan los servicios técnicos para acometer reformas y/o mejoras urbanísticas en las vías públicas, con expresa mención de la fecha de la propuesta técnica y, en su caso, previsión de ejecución.

2.- Arestian aipatutako atariko atalean dauden lehenengo hiru esteken bitartez ematen den informazioa egokitzea esteka bakoitzaren izenburuak adierazten duenari.

2.- Acomodar la información que se suministra en los tres primeros enlaces del ya citado apartado del portal de transparencia con la que se dice suministrar en los títulos de cada enlace.

**240.- GUK UDAL TALDEAK
AURKEZTUTAKO MOZIOA:
ELIKAGAIK ALPERRIKALTZEA.**

**240.- MOCIÓN DEL GRUPO
MUNICIPAL GUK S/EL
DESPILFARRO ALIMENTARIO.**

Paula Amievak ondorengo mozioa irakurri du:

Paula Amieva da lectura a la siguiente moción:

Frantziak lege bat idatzi berri du, zeinak supermerkatuei debekatzen dien kalitate oneko jakiak biltegiatzea laster iraungiko badira. Hala egin beharrea, lankidetzak hitzarmenak sinatuko dituzte ongintzazko erakundeekin eta, horrela, egunero dohain banatzen duten janari kopurua handitu ahal izango dute. Dendetatik hurbil dauden edukiontzietatik jendeak janaririk ez hartzeko hura nahita suntsitzen duten supermerkatuentzako isunak ere ezarri ditu araudiak, 75.000 eurokoak hain zuzen.

Recientemente Francia ha redactado una Ley que prohíbe a los supermercados almacenar comida de buena calidad que se acerque a su fecha de caducidad. En su lugar, firmarán convenios de colaboración con organizaciones benéficas, que podrán multiplicar el número de comidas gratuitas que distribuyen cada día. Esta normativa también prevé multas de hasta 75.000 euros para los supermercados que destruyan deliberadamente los alimentos con el fin de evitar que sean recuperados por las personas que los recogen de los contenedores próximos a las tiendas.

